


6 mantangorri



AZOKA

## LIBURUA

**Izenburua:** ‘Kanguruak zootik ihesi’.**Egilea:** Iñaki Zubeldia. **Marrazkiak:** Alai Zubimendi.**Orrialde kopurua:** 72 orrialde. **Bilduma:** Gazztxo!**Argitaltxea:** Ibaizabal.

Australia da kanguruen herrialdea. Munduko hainbat eta hainbat zootan eta animalien parkeetan ere ikus daitezke, ordea. Frankfurteko zooan ere baziren hainbat, eta haietako hiruk ihes egitea lortu zuten, 2012ko udan. Albiste bitxi horri tiraka, istorio hunkigarri, bitxi eta sentibera osatu du Iñaki Zubeldia idazleak.

**Gertaera berezia jazo da Frankfurteko zooan, ezta?**

Hiru kanguru, basurde bat, azeriat eta ume kuadrilla ameslari bat dira ipuineko protagonista nagusiak. Basoan bizi diren basurde eta azeri batek Frankfurteko zoora jateko ohitura dute gauero. Hala, zooan bizi diren kanguru batzuen lagun egiten dira. Kanguru horietako bat ama da, eta Australian baitu eta Alemaniara ekarri zuten. Australian geratuz ziren haren bikotidea eta umea. Kanguru amaren ametsa da bere herrialdera itzuli eta familiarekin elkartzea. Amets horren berri izatean, kanguruie zootik ihes egiten lagundu eta haien jaioterrira, Australiara, bidaltzea izango da basurdearen eta azeriaren helburua. Larunbat gaubatean joan, eta alanbrezko hesia apurtzea lortuko du basurdeak bere letagin zorrotzei esker. Lanean letaginetako bat apurtuko zaio, baina helburua beteko dute: kangurek zootik ihes egingo dute.

Etxalde batean hezitakoa da basurdea, eta ohitura du egunero herriira jaitsi eta haurrengana joateko. Gau horretan, azeriarekin eta kanguru lagunekin agertzen da. Onduan jakingo dute haurrek zein den kanguruen ametsa: Australiara itzultzea. Ametsa betetzeko ahalegina egingo dutela zin egiten diote animalia taldeari, eta hori nola gauzatu pentsatzen hasten dira buru-belarri. Basurdeak letagi-

**Iñaki Zubeldia**

IDAZLEA

# «Askatasunaren aldeko kantua edo mezua egiten da ipuinean»

na hautsia duela ere ohartu dira, eta horri ere konponbidea bilatu nahi izango diote.

**Nondik bururatu zitzazun ipuinerako ideia?**

Santanderren oporretan ginen

egun batean, albiste bitxi bat irakurri genuen emazteak eta biok *El Diario Montañés* egunkarian; Frankfurteko zootik hiru kanguruk ihes egin zutela zioen berriak. Hura irakurri orduko, ideia pila etorri zitzazidan burura; haien artean,

Galiziako baserri batean hezi zuten basurdearen istorioa. Bi ideia horiek zerbait bitxia sor nezakeela ikusi nuen, eta ideia batzuk zirriborratzen hasi nintzen.

**Beti erne egoten zarete, beraz, idazleok?**

Normalean, bai. Batuetan mila ideia etortzen zaizkigu burura, eta beste batuetan ez horrenbeste. Baina beti ditugu belarriak eta begiak erne. Inspirazio iza-tent ditugu, eta tarte horiek aprobetxatzekoak izan ohi dira. Kasu honetan, ideia ugari eterri zitzazkidan gogora. Oso erraz landu dudan ipuina izan da; oso pozik idatzi dut.

**Informatzen aritu zara istorioa idazteko?**

Bai, ipuina kokatzeko, esaterako, Petra Elserrekin bildu nintzen, eta harekin erabaki nuen istorioa non koka nezakeen. Haren laguntzari esker, nire istorioa Walldorf herrixkan kokatuko zela erabaki genuen; Frankfurt [Alemania] hiritik gertu dagoen herri txiki bat da Walldorf. Basurdearen letagina nola konpon zitekeen informatzen ere aritu nintzen. Hala, bost hortz klinikari idatzi nien kontsulta egiteko, eta, azkenean, Bergarako [Gipuzkoa] klinika batean eman zizkidaten argibideak.

**Askatasunaren aldeko deia egiten da liburuan.**

Bai, askatasunaren aldeko kantua edo mezua egiten da ipuinean. Liburuan agertzen den pertsonaietako batek dioen moduan, «askatasuna da munduko ondasunik ederrena». Denok behar eta nahi dugu askatasuna, baita animaliek ere. Baita liburuko kanguruak ere.

**Laguntasunaren eta elkartasunaren mezuak ere ageri dira.**

Bai, askatasunaren aldeko aldarria egiteaz gain, laguntasuna, elkartsuna, herrrimina eta halako gaiak eta sentimenduak islatzen eta jorratzen ditu ipuinak. Animalien arteko lankidetza eta pertsonen eta animalien arteko harremanak ere lantzen dira. Nahiko ipuin sentimentalda da; abentura eta irudi-men handikoa.